

AURKIBIDEA

GELAZ GELAKO BERTSO BILDUMA



Orrialdea	Taldea
1.	Aurkibidea
2.	Abendaño ikastola - Gasteiz - 5.A
3.	Abendaño ikastola - Gasteiz - 5.B
4.	Abendaño ikastola - Gasteiz - 5.D
5.	Abendaño ikastola - Gasteiz - 6.A
6.	Abendaño ikastola - Gasteiz - 6.B
7.	Abendaño ikastola - Gasteiz - 6.D
8.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 5.D
9.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 5.D1
10.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 5.D2
11.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 6.D
12.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 6.D1
13.	Angel Ganivet ikastetxea - Gasteiz - 6.D 2
14.	Arantzabela ikastola - Gasteiz - 5. A
15.	Arantzabela ikastola - Gasteiz - 5. B
16.	Barrutia ikastola - Gasteiz - 5. A
17.	Barrutia ikastola - Gasteiz - 5. B
18.	Barrutia ikastola - Gasteiz - 6. A
19.	Barrutia ikastola - Gasteiz - 6. B
20.	Luis Elejalde ikastetxea - Gasteiz - 5. A
21.	Luis Elejalde ikastetxea - Gasteiz - 5. B
22.	Luis Elejalde ikastetxea - Gasteiz - 6. maila
23.	Umandi ikastola - Gasteiz - 5. A
24.	Umandi ikastola - Gasteiz - 5. B
25.	Umandi ikastola - Gasteiz - 5. C
26.	Umandi ikastola - Gasteiz - 6. A
27.	Umandi ikastola - Gasteiz - 6. B
28.	Umandi ikastola - Gasteiz - 6. C
29.	Armentia Ikastola - Gasteiz - 5. A
30.	Armentia Ikastola - Gasteiz - 5. B
31.	Armentia Ikastola - Gasteiz - 5. D
32.	Armentia Ikastola - Gasteiz - 6. A
33.	Armentia Ikastola - Gasteiz - 6. B
34.	Armentia Ikastola - Gasteiz - 6. D
35.	Toki Eder ikastola - Gasteiz - 5. A
36.	Toki Eder ikastola - Gasteiz - 5. B
37.	Toki Eder ikastola - Gasteiz - 6. A
38.	Toki Eder ikastola - Gasteiz - 6. B
39.	Toki Eder ikastola - Gasteiz - 6. C



GASTEIZKO BERTSO ESKOLA
AMAIA ZENTROA

Pérez Galdós z/g 01002 GASTEIZ

Tel: 945010505 fax: 945288275

Mug: 688695875 (Arduraduna: Iñaki Viñaspre)

e-posta: gasteizkobertsoeskola@yahoo.es

www.arababertsozale.org



Abendaño ikastola – Gasteiz

5.A

Doinua: Pasaiaiko plazatik

SANTA AGEDA

Gelan Santa Ageda
ospatuko dugu
guk ondo pasatzeko
daukagu helburu
lanean egon gara
kopla dugu bildu
Santa Ageda asko
gustatzen baitzaigu

OLENTZERO

Olentzero prestatzen
dago opariak
zuhaitzaren azpian
daude zapatilak
zapatilen ondoan
daude objektuak
ondo pasatzen dute
neskak ta mutilak

HERRI KIROLAK

Lagunekin jolasten
herri kirolean
oso ondo pasatzen
gaude gu herrian
harri handi batekin
denbora osoan
neskak eta mutilak
tailerren ondoan

SAN PRUDENTZIO

Barraskiloarena
ez da marrazkia
ez egin tontakeri
da ta gure jaia
bestela egingo dut
asko mila kopia
San Prudentzio daukagu
gure zaindaria

EUSKARAREN EGUNA

Altxatzen gara beti
euskaraz egiten
ikastolan bertsoak
egiten abesten
ikastolan abesten
beti gu ikasten
kalean euskaraz guk
beti bai jolasten

EUSKAL IHAUTERIAK

Mozorratuko gara
dibertigarriak
oso politak gara
baina desberdinak
lagunekin jolasten
militarrezkoak
80koak gara
gu mozzorratuak

EUSKAL JAIAK

Jendea abesten dago
erloju begira
jolasten ari gara
bokata jatera
pertsonak ari dira
txaloka ipurdira
euskal herrietako
jaiak ari dira

KORRIKA

Plazatik ateratzen
kalera korrika
Gasteiztik buelta ematen
korrika presaka
gepardoak korrika
saltoka patata
esgintzeak egiten
korrika albarka

BASERRITARRAK

Nire herrian nago
hemen dira lagunak
animaliak ditut
nire gustukoak
baserrietan daude
ikusten hodeiak
hau ez da ez ametsa
hemen baserriak



Abendaño ikastola – Gasteiz
5.B

ERRALDOIEN BIDEA

Doinua: Pasaiako Plazatik

Ba bi erraldoi daude
bat dago Eskozian
ta bestea Irlandan
ta beti borrokan
Benandonner borrokan
eta Finn bere irlan
beti dago apurtzen
ta Finnen etxean

Bennandoner prest dago
bideak hartu ditu
berak konfiantza du
ez duela ahaztu
borroka egin eta
Finn nahi du akatu
irlarako bidea
berak hartu baitu

Sehaskara heltzean
ikusi horrela
ustez txikia zena
horren handia zela
Benandonner orduan
sentitu da ergela
uste zuen semea
eta ez Finn dela

Benandonner ta Finnek
harriak jaurtitzen
beti borrokan daude
harriak botatzen
borrokaren harriak
bidea osatzen
horrela uharteak
bideak elkartzen

Oonagh konturatzen da
nor bait etortzean
Finn ezkututzen dela
sehaska batean
Benandoinner izutu
korrika joatean
Oonagh Finnen emazte
ezkondu zenean

Asko izutu zaigu
semea ikustean
eta bidetik behera
korrika hastean
bidea apurtu du
korrika joatean
eta Finn oso pozik
gelditu etxean



Abendaño ikastola – Gasteiz 5.D

Nafarroko jaietan
gu gaude korrikan
Nafarroko jendea
eta jauzikan
gu gaude nafarroan
ibiltzen korrikan

Animatu zaitezte
joateko jauzika
gu korrikatik goaz
jendea txaloka
Euskadiko ohitura
deitzen da korrika

Astoa ikusi nuen
hogeita hiruan
abestia abesten
dugu gabonetan
beti abesten dugu
Maritxu parrandan

Euskal tradizioa
jaten taloa
harekin batera nik
ikusi otsoa
lagunekin batera
jaten txorizoa

Gasteizeko jaietan
egiten taloak
barrakak aprobetxatu
erosten txurroak
ta gustoko duguna
membrillo intxaurrak
egunekin batera
jaten txorizoa

Euskaraz ikastolan
nik urte osoan
batzuetan kalean
gatzelanieran
Euskara mota asko
munduan euskararen
ikastolan nik jada
hitz egin batuan

Goizean esnatzen naiz
poza askorekin
jolasak eta guzti
anderenoirekin
eguna bukatzean
goazen amarekin
ondo pasatu dugu
gure lagunekin

Oso onak direla
ez dugu ikara
askok irakur dute
gogokoa bada
denek idazten dute
dena behar bada
Euskal literatura
oso polita da

Basoan nengoela
lamiak du gona
errekan ikusi dut
orrazten melena
lamiaren ondoan
gure amurraina
lagun bat bezala da
gure basajauna

Gure bertsolariak
den dena kantatzen
ikusten kantariak
bertsoak egiten
beti praka txuriak
oinetan jartzen
alkondara gorriak
beti eramaten



Abendaño ikastola – Gasteiz 6.A

BERTSO KOMIKIA Doinua: Familia Blues

Jendea lasai ta pozik dago
denok bazkari batean
baina zerbait gertatuko
da jabearen egunean

Tipo maltzurak agertu dira
intentzio txarrarekin
eta tiroka bukatu dute
herriko jabearekin

Bukaera zuk jakin nahi bazu?
ba zuk asmatu ezazu
irudimena askatu ezazu
ez egin inori kasu

Ranpatik bera botako naiz ni
zuok laguna ikusi
denak animatzen hasi dira
Pinaxek egin du jauzi

Kaka mokordo bat dago erdian
eta berak zapaldu du
lurrera erori zaigu laguna
hori zuen helburu

Lagun guztiak zikin zikiñal
txisa ta kakaz beteta
goazen etxera aldatzera
haxe dugu zalaparta

Goiza lasai zegoen
San Martingo skate pista
praktikatzen ibiltzen ziren
truko batzuk gure bistan

Bakoitzak bere trukoekin
hasi ziren harro harro
mikroekin eraman zuena
A ze kolpe zazarro

Lehia bukatutzat eman zuten
Skateroak txapeldunak
ta besteak aldendu ziren
a ze aurpegi tuntunak

Anbulantzia behar du Joxek
odol jario bat dauka
anbulantzia non ote dago
dabil auzoan galduta

Joxe Prontxio bota egin da
aereo bat irten zaio
hegaka irten txorian estera
txoriak dio propio

Anbulantzia ailegatu da
eta Joxe eraman du
hurrengo zita guk berarekin
ospitalean daukagu

Andre maitea kanpora noa
teilak konpontzera aizu
bitartean afaria egin
pikutara joan zaitetzte

Teilak hor goitik irrist egin du
nori eroriko zaio
buru gainean erori zaio
kristoren mina egin dio

Haserre handia hartu du
madarikatua esan
lagun maitea ez haserretu
txorixo sorta bat eman



Abendaño ikastola – Gasteiz 6.B

Doinua: Gagnam style

Gabonak heldu dira
familiakoekin
bazkari erraldoiak
janari askorekin
ospatuko ditugu
oparitxoekin
mugikor berri eta
patinetearekin

oparitxoak
ooooo opariak
gagaga
gabonetan

Etxean gauza asko
ditugu lehendik
ez dugu aurten behar
halako oparirik
Olentzero jauna zuk
benetan badakit
maitasun, laguntasun
ba al duzu ekartzerik?

Kaosa Toys Aras-en
ageri omen da
gizon ta emakumeak
doaz dendaz denda
laister beherapenak
jostailu dendara
ta umeak atzetik
beraien antzera

Krisia ikusita
guk egun hauetan
etortzen denarekin
gaude konformean
denontzat opari bat
ondo legoke han
guk ez dugu kexarik
aurten gabonetan

Krisia dela eta
ez dago dirurik
beti opariak nahi
eta ez besterik
Guzti honen onena
ez dago dudarik
ez dela egongo ez
Gehio ikastolarik

Gaur hogeita lau dugu
gu familiarekin
Olentzero_itxaroten
ilusioarekin
jarri dugu esnea
gaileta_askorekin
opariak ditugu
poz handiarekin



Abendaño ikastola – Gasteiz 6.D

BINGOA

Doinua: Ai Zapotxin

**Ai BINGOA
egingo dugu orain
eta zu zaude
zenbakiaren zain**

1
Gabonetako bingo
da amonetzako
Lehenengoa dugu hau
zuen gustorako

4
Behatzak gurutzatu
behar dituzue
laua atera dela
jakin ezazue

5
Hamarren erdia da
gure zenbakia
esku bakar batekin
eta ez erdia

6
Oinatzek beste txapel
ditu zenbakiak
berak sei ditu jada
ta denak berriak

8
Bi bola dira eta
elkartuta daude
ikusi nahi baduzu
pregunta_al alkate

10
Zenbaki hau da onena
ikusi notetan
hau guk ateratzean
hasi zara kantan

11
Hauek bikiak dira
bat eta ondoan bat
zorte ona eukita
irabazi danak

12
Arrautzak bezalaxe
kutxan da dozena
bingoan atera da
Hamabigarrena

14
Hau da emozioa
Zenbakia hamalau
tokatzen zaionari
pozik egun ta gau

16
Hamazazpi ta_hamabost
badago tartean
hamasei zenbakia
dela jakitean

17
Hamazazpi zu zara
gure zenbakia
polita ta onena
hori da egia

19
Atera zaigu hemen
zenbaki hemeretzi
askoz gehiago daude
ez gaitezen etsi

20
Hogeigarrena hau da
atera zaiguna
tatxatu zenbakia
ta itxoin hurrena

**Ai BINGOA
bukatu dugu orain
eta zu zaude
opariaren zain**



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz 5.D

Ai amatxo!
Garbi zegon atzo
Eta gaur berriz zikin dago
kontxo!

Paretetan milaka
Daude graffitiak,
Graffiti onak egin
Ta ez itsusiak.

Lanean gaudenean
Parkearen erdian,
Gaztainak jausten dira
Gure buru handian.

Ni beti lehenengo
Garbitzeko txanda,
Gu egunero oso
Goiz jaikitzen gara.

Birziklatu ezazu
Eta izan garbia,
Kartoia urdina ta
Plastiko horia.

Ezin dugu hau jasan
Gauza bat nahi dugu,
Gure sudurrentzako
Pintzak nahi ditugu.

Idea bat daukagu,
Denontzat hobeto,
Zaborra altueran
Bizkarra ez hausteko.

Garbitzaileok dugu
Sorbalda apurtua,
Karrito bat nahi dugu
Motorizatua.

Euria egiten du
Etxera jatera,
Eguraldi txarrekin
Ez goaz kalera.

Kale garbitzaileok
Garbi nahi kalea,
Oso gaizki dago bai
Kakak hor uztea.

Usain txarra kamioian
Da etengabea,
Nahi dugu limoi usain
Anbientadorea.

Udazkenean zaigu
Lana biderkatu,
Hostoak ez jasotzeko
Pinuak landatu.

Txakurren kaka jaso
Guk ez zapaltzeko,
Aspirator 2000
Nahi dut lanerako.

Oihuka bazaudete
Manifa batean,
Nahi dugu ez botatzea
Arrautzak kalean.

Guretzat nahi dugu ta
Pixkat gehiago jai,
Hainbeste ez ibiltzeko
Kamioi gehiago nahi.



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz

5.D1

Gurasoak,
Seme-alabatxoak,
Jefeak dira pertsona
gaiztoak!

Gure alaba maltzurak
Nahasten bazterrak,
Gaizki portatzen dira
Seme-alaba alferrak.

Ezkerrean dagoenak
Ematen du gerra,
Gaizki portatzen dira
Ta bota puzkerra.

Jostailu, jolas eta
Gozoki goxoak,
Haurrak beti eskatzen
Ze kapritxosoak!

Semaforoetan ez
Dute begiratzen,
Agureek ez dakite
Oinezko izaten.

Etxea oso bero,
Izerditan nago,
Berogailu zentrala
Oso bero dago.

Seme-alabak daude
Beti protestatzen,
Ez dute arrain eta
Barazkirik jaten.

Gela izaten dute
Desordenatua,
Galdu dute baloia
Ta haien burua.

Galdu dute kontua
Ta dirua, tira!
Argiaren fakturak
Oso txarrak dira.

Umetxo erretzen ez
Zaitut ikusi nahi,
Tabakoa ez saldu
Txarra delako bai.

Argia piztu eta
Itzaltzen da beti,
Diru gutxi dago ta
Argia garesti.

Ia gauero ikusten
Dute "Hormiguero",
Kontsoletan jolasten
Daude egunero.

Etxean barregarri,
Kalean akabo,
Egunero garbitzen
Aspertuta nago.



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz 5.D2

Konturatzen ez bada,
Joko du pareta,
Hegaztia delako,
Luma askoz beteta,
Eta arrautzak ditu
Kabian gordeta.
Gure gustukoa da,
Polita da eta.

Asko gustatzen zaigu
Bera erabiltzea,
Gehien gustuko dugu
Bertan marraztea,
Aukeran nahiago dut
Digital taldea,
Laukizuzena da ta
Zuri edo berdea.

Argala eta luzea,
Kainabera bat lez,
Likidoak xurgatu
Beraren bitartez,
Tubo baten antza du
Hamaika kolorez,
Kolakao edaten dut
Tutu horren bidez

Zonbiz Beteta dago
Holako tokia,
Hilobiak badaude
Ze beldurgarria!
Herrietan badago
Beti itsusia,
Oso handia da eta
Beltz edo txuria.

Mutanteak dira ta
Ez dauzkate amak,
Baina asko dituzte
Tramankulu ta armak,
Etxea estolderiak,
Paretak ta hormak,
Berde ta ninja dira
Gure lagun onak.


Lau hankatan jartzen da
Begitan argia,
Korrika egiten du,
Du pauso txikia,
Lurretik egiten du
Hain salto handia,
Animalia bat da
Beltza edo txuria.

Irakasle da, baina
Ez andereñoa,
Asko oihukatzen du
Eta ere majoa,
Batuetan gaiztoa
Eta ere guapoa,
Nahiko altua eta
Bihotz onekoa.

Eguna pasatzen du
Sarrerak fregatzen,
Despistatua eta
Famatu da hemen,
Eguna pasatzen da
Ta ohera zuzen,
Telebistan agertzen
Porru bat erretzen.

Batzuenak argiak,
Besteenak horiak,
Sensodyne behar duzu,
Kendu bakteriak,
Bakoitzak asko ditu
Gehienak txikiak,
Beti bustita daude,
Gainera zuriak.

Guk pentsatu dugunak
Darama motxila,
Normalean kolore
Grisak ta txuriak,
Pilota baten forma
Dira gure pistak:
Oso txikiak eta
Oso borobilak.



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz
6.D

Berriz zigortu egin gaituzte
Hamar aste patio gabe,
Oso oso haserre joan ginen,
Berrero aspertuta gaude.
Berriz zigortu egin gaituzte
Hamar aste patio gabe.

Pantanoan dagoela alai
Arrain denak hartu arte,
Etorri dira arrain handiak
Uretara bota dute.
Pantanoan dagoela alai
Uretara bota dute.

Anbulantzian gure arbitroa
Burua du odoletan,
Jokalariak baino okerrago,
Ospitalera eraman.
Anbulantzian gure arbitroa
Ospitalera eraman.

Ospitala aspergarria da
Ez dago bizikletarik,
Nire lagunak faltan botatzen,
Ez dago telebistarik.
Ospitala aspergarria da,
Ez dago telebistarik.

Azkenean partidua galdu
Eta oso triste gaude,
Oso tranpatiak ziren eta
Oso irrifartsu daude.
Azkenean partidua galdu,
Oso irrifartsu daude.



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz

6.D 1

Ahateak pentsatzen du pozik
 Korrikari utzi gabe,
 Libratu dela tonto batetik
 Zortea da bere alde.
 Ahateak pentsatzen du pozik
 Zortea da bere alde.

Zaldiak itzuli zirenean
 Hizketan zeuden bai jator,
 Ez zirela bada konturatu
 Untxia ez zegoen hor,
 Zaldiak itzuli zirenean
 Untxia ez zegoen hor.

Printzesa ikusita harritu da;
 Eman dio nazka asko,
 Bere aurpegi eta sudurra
 Oso itsusia delako.
 Printzesa ikusita harritu da
 Oso itsusia delako.

Txakur untxiak borroka handia
 Odola eta zauria,
 Azkenean lagunak eginda
 Eman dio janaria.
 Txakur untxiak borroka handia,
 Eman dio janaria.

Partidua bukatu Alavesak
 Egin du partidu ona,
 Sendoak sartu du kriston gola
 Ta galtzaile Bartzelona.
 Partidua bukatu Alavesak
 Ta galtzaile Bartzelona.



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz
6.D 2

Eider eta Yaiza bihurtu ziren
Sandia eta meloia,
Mertxika, anana, sagar, madari ...
Mazedonia erraldoia.
Eider eta Yaiza bihurtu ziren
Mazedonia erraldoia.

Azkenean txerria zuloan
Hasi da egiten negar,
Txerriak begietan malkoak
Ta untxiak kar, kar, kar, kar,
Azkenean txerria zuloan
Ta untxiak kar, kar, kar, kar.

Messi eta Miki aldageletan
Borrokatzan hasi ziren,
Eskua eman eta gustura
Kaña ta kaña edaten.
Messi eta Miki aldageletan
Kaña ta kaña ematen.

Txakurrak goxoki guztiak jan
Gozoki denda batean,
Tomik goxoki asko jan zuen
Oso potolo jarri zen,
Txakurrak goxoki guztiak jan;
Oso Potolo jarri zen.



Arantzabela ikastola – Gasteiz
5.A

ASMAKIZUNAK

Europako artean
ia txikiena
Pirinioetatik
dago gertuena
bere hizkuntza berriz
munduko zaharrena
guretzat da munduko
herri politena

Borobila da eta
ere bai du ura
han ere bai dauzkagu
Gasteiz ta Araba
Martetik ikusita
oso polita da
Handi- handia da ta
hantxe bizi gara

Egingo dizutena
Suabe- suabe
jartzen zaitu beroa
eta gero grabe
zu ondo sentitzeko
hau bai dela klabe
dantza hau egiten da
arroparik gabe

Askotan mahai gainean
edukitzen dugu
etxean ahaztuta
zigorra seguru
hor apuntatzea gauzak
maisuen helburu
txuletak egiteko
ere balio du

Hau kristalezkoa da
ta ez da lanpara
oso argitsua da
pasatu ezker hara
ta itzaltzen badugu
dena ilunpetara
argia ematen du
eta tresna bat da

Grisa kolorea du
oso kurioa
ahate baten erruz
dauka arazoa
animali artean
azkarrena doa
asko gustatzen zaio
azkenarioa



Arantzabela ikastola – Gasteiz
5.B

BABARRUN MAJIKOA

1
Ama eta mutila
Bereziki txiro
"behia babarrun truke
salduko dut edo..."
ama haserretu zen
ta jarri zen bero
Babarrunak leihotik
Bota eta gero

2
Ama eta umea
Zelako pare
Amak esaten zuen
Behia zen hobea
Baina sorpresatxo bat
Zeukaten gordea
Zeruraino hazten da
Bere landarea

3
Landaretik hasita
Bai etxe gainera
Igual lapurtzea da
Niretzat aukera
Etxera bueltatu zen
Landaretik behera
Urrezko poltsarekin
Poz-pozik etxera

4
Berrito igo zen ta
Begiratu dena
Ta aukeratu zuen
Oilo politena
Urrezko arrautza handiak
Jartzen zituena
Amarentzat izan zen
Opari onena

5
Berrito igo eta
Landarean barrena
Arpa bat hartu zuen
Kantatzen zuena
Erraldoia atzetik
Korrika ze pena
Goitik behera jausi ta
Akabo problema

6
Beldur asko bazeukan
Bazeukan bai asko
Bere ama oso triste
Sentitzen zelako
Oiloari eskerrak
Bai zeuden bai bapo
Zoriontsu izan ziren
Behin ta betirako



Barrutia ikastola – Gasteiz

5.A

Doinua: Pasaiaiko plazatik

Hemengo mozorroak
koloretsuenak
politak eta alaiak
dira hoberenak
plaza jendez beteta
ikusten karrozak
gure inauteriak
dira politenak

Araba, Gipuzkoa,
Bizkai Nafarroa
Behe Nafarroa ta
Lapurdi Zuberoa
zazpi probintzia hauek
leku potoloa
eta errima hauek
ez dute potoa

Euskal Herriak ditu
oskol apustuak
harri jasotzaileak
dituzte harriak
lasterketa egiten
korrikalariak
herri kirolak dira
Euskal herrikoak

Korrika laster dator
eta gu prestatzen
gu hemen gaudelako
guztia ematen
lehenengo posizioan
Nekatzen- nekatzen
Aitor, Igor ta Miren
korrika egiten

Abendu hasieran
Euskara helburu
gure hizkuntza denez
behar dugu zaindu
oso ondo pasatzen
Ez dugu apuru
Euskararen eguna
guk ospatzen dugu



Barrutia ikastola – Gasteiz
5.B

Doinua: Pasaiako plazatik

Segalariak mozten
gure belar txarrak
harri jasotzaileak
oso indartsuak
gure aizkolariak
apurtzen enborrak
gure herri kirolak
Euskal herrikoak

Nire lagun minena
da goma daukana
Euskaraz hitz egiten
dauka zoriona
ez da oso trebea
baina badu lana
Euskaraz egiteko
oso leku ona

Korrikaren eguna
datorkigu azkar
uste dut hasten dela
martxoaren hamar
jende guztia dago
nekagarri samar
Korrika nagusia
gure herrian zehar

San Antongo zozketa
dugu gogokoa
gure lagun mina da
Laguna Hegoa
ta zenbakiarekin
Irekita ahoa
San Antongo txerria
txokolatzekoa

Markitos pertsonaia
Zalduondo herrian
asto baten gainean
gero erretzean
itxaron beste urte
bere esperoan
Inauteriak dira
martxoak zortzian

Eta euskararekin
nahi duzue goza
festa honetan dago
nagusien poza
dantzan eta kantuan
airosa- airosa
Euskaraz egiteko
festa aproposa

Gure herrikoa da
hizkuntza euskara
txikitatik hitz egin
ta euskara gora
gustuko duguna da
hizkuntza berbera
ez badugu hitz egiten
desagertuko da



Barrutia ikastola – Gasteiz
6.A

Doinua: Orioko balea

Euskararen eguna
Barrutian jada
futbolean jolasten
barre ta algara
Ppartidua bukatu
frontoian da guda
Euskararen eguna
oso polita da

Ailegatu Barrira
hasi jolasean
gelatara joan ginen
ta dena ordenean
gau guztietan egin
jolasak gaubelan
oso ondo pasatu
genuen Barrian

Gaur gu etorri gara
gure eskolara
Euskaraz jolastera
ta hitz egitera
patio ostean goaz
denok musikara
txirrinak jo du orain
gu goaz etxera

Korrika ospatzen da
Barrutia ikastolan
marrazkiak egiten
Tta gero korrika
Ondo pasatzen dugu
Korrika txikian
Korrika bukatzen da
Baiona herrian

Euskararen astea
ailegatu zaigu
Euskaraz hitz egiten
gu bagara magu
udaberria uda
udazkena negu
lagunekin euskaraz
hitz egiten dugu

Festa hau ospatzen da
Araba txikia
Araba euskaraz da
ikaragarria
Euskal neska mutilak
egin antzerkia
Araba euskaraz da
Ikastolen jaia



Barrutia ikastola – Gasteiz 6.B

Doinua: Kupela

Segurara joan ginen
gure lagunekin
ta bertan genuen zain
etxeko Agustin
oso ondo pasatu
denok Simonekin
etorri Segurara
nahi baduzu jakin
eta ondo pasatu
denok elkarrekin

Txirrinak jo du laster
ta barruan geunden
oso urduri geunden
hasteko jolasten;
gu ta lagunak asko
esfortzatu ginen,
botila betetzea
asko kostatu zen;
euskaraz egin nahi
ta lortu genuen

Ez da asko hitz egiten
hizkuntza euskara,
ikastolan bagaude
badugu aukera;
ikastolan sartzean
gu mintzaten gara
bultzatu nahi genuke
bere erabilera,
euskaraz egiteko
ikasi behar da.

Martxoak hamalautik
guztiok gara batu
korrika datorrela
ez al zara ohartu;
korrika egin nahi duenak
orain da momentu,
bi mila kilometro
gu gara nekatu
hamar egun korrika
Baionan bukatu.

Klasean hastear da,
txisteak kontatzen,
patiora joatean
jendea espiatzen;
konplizeak ematen
ta espiak kentzen,
jolas polit honek
gu gaitu animatzen
Ondo pasatu eta
espiak bilatzen.

Euskararen eguna
ospatzen dugu hara,
ondo pasatzen dugu
barre ta algara;
klasean ta kalean
mintzatu euskara,
abenduan hiruan
ospatzen da jada;
ez badugu nahi galdu
hitz egin behar da.

**Barrutia, Barrutia
zelako abestia,
Barrutia, Barrutia
ze nolako mamia.**



Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz

5. A

Bazen behin familia bat
Bizi zena aldrebes,
Hansel eta Gretel ez
Ziren bizi errez,
Amaordearekin
Beti zeuden nekez,
Familia guztiak
Txanpon bat ere ez.

Abiatu egin ziren
Amaorde ondoan,
Basoan egon ziren
Arratsalde osoan,
Amaordeak zeukan
Dirua gogoan
Eta utzi zituen
Umeak basoan.

Basoan beti zeuden
Bakarrik jarraitzen,
Saiatzen ari ziren
Etxera bueltatzen,
Arratsalde osoa
Pasatu ibiltzen,
Txokolatezko etxea
Aurkitu egin zuten.

Orduan bi umeak
Joan ziren etxera
Ta bertako etxetik
Atsoa atera,
Atsoaren etxea
Ipuinen antzera,
Gonbidatu zituen
Etxera sartzera.

Ohartu ziren zela
Sorgin zahar tristea,
Bere helburua zen
Hansel loditzea,
Sorginak nahi zuena
Zen Hansel jatea
Ta Gretel jarri zuen
Garbitzen etxea.

Sorginak esan zion
Labea pizteko,
Hansel jan nahi baitzuen,
Noski, afaltzeko,
Sorginari eskatu
Ba erakusteko
Ta sorginak labea
Piztu laguntzeko.

Sorgina tonto eta
Oso gaiztoa zen,
Labea piztu eta
Sorgina erre zuten.
Hansel askatu eta
Zeozar bilatzen,
Urrea aurkitu zuten,
Pozik jarri ziren.

Hansel ta Gretel ziren
Aberatsak nahiko,
Inor horrela ikusi
Nahi ez zutelako,
Hansel ta Gretel biak,
Guapa eta guapo,
Etxe bat egin zuten
Umezurtzentzako.



Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz

5. B

Emateko opariak
Badauzka gogoak,
Aitak eman zizkien
Bai oparitxoak,
Opariak ez ziren
Gabonetakoak,
Ziren hiru opari
Eta magikoak.

Astoarekin semeak
Bidaia hasteko,
Astoaren magia
Ondo gordetzeko,
Bidean egonez
Nekatu antzeko,
Ostatuan geratu
Gaua pasatzeko.

Umearen astoa
Zen oso dotore,
Umea beti izan zen
Astoaren jabe,
Ostalariak aldatu
Astoa hala ere,
beste astoa eraman
konturatu gabe.

Mahaia duen semea
Estatura bela,
Ostalariak ikusi
Agertzen pastela,
Agindu ta agertzen
Zen jana horrela,
Ostalariak ohartu
Magikoa zela.

Semea pozik joan zen
Herriko hostalera,
Ostalariak mahaia
Aldatzeko aukera,
Semea joan zenean
Mahaia hartzera,
Semeak beste mahaia
Eraman etxera.

Makila zuen semea
Ostatu berbera,
Ostalariak ikusi
Eta jokatzera,
Orain ostalaria
Joan zen hurbiltzera
Eta ahal zuenean
Makila hartzera.

Makilaz eman zion
Kolpetxo mordoa,
Ostalariak mina,
Hori bai tontoa!
Azkar- azkar joan zen
Hartzera autoa,
Berreskuratu zituen
Mahaia eta astoa.

Ostalariak hartu,
Makilak egurtu,
Ostalariak, berriz,
Egin ta damutu;
Eta hiru semeek
Opariak lortu,
Erakutsi nahi digu
Ezin da lapurtu.



Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz
6. maila

Ipurdian koska egitea
Ziren otsoaren asmoak,
Azeriari harrapatzea
Lortu egin du otsoak.
Ipurdian koska egitea
Lortu egin du otsoak.

Untxiak oso ondo jaten du
Ahoa eta haginekin,
Benetan pozik dago jolasten
Bere azenarioarekin.
Untxiak oso ondo jaten du
Bere azenarioarekin.

Zortzarekin ihes egin ta
Poz-pozik dago jendea,
Oihuka eta saltoka dago,
Haserre kobratzailea.
Zortzarekin ihes egin ta
Haserre kobratzailea.

Ume guztiak saltoka eta
Munduko tarta handienak
Iñakiri belarritik tira!
Poz-pozik daude bai denak.
Ume guztiak saltoka eta
Poz-pozik daude bai denak.

Bihar ezkonduko dira pozik
Ta zaldia dotorea,
Beti musuka zeuden etxean
Printzesa eta printzea.
Bihar ezkonduko dira pozik
Printzesa eta printzea.



Umandi ikastola – Gasteiz

5. A

Bazen behin satortxo bat
Gustura munduan,
Poz-pozik esnatu zen
Ta kalera joan,
Satortxo kalean
Zegoen orduan,
Bat batean satorrak
Gorotza buruan.

Satorrak burua ez
Zuen ez garbia,
Satorrak ikusi zuen
Uso bat txikia.
-Zurea al da kaka?
Galdera bitxia.
Usok egin zuen
Tanta bat zuria.

Satorra kezkatuta,
Zelako opari!
Berea zen galdetu
Zion zaldiari,
Zaldiak EZ esanda
Erakutsi ipurdi
Eta egin zituen
Bost bola oso handi.

Ardia aurkitu ta
Izena zuen Pepi,
Berea zen galdetu
Ta ezetz esan beti.
-Nirea ez da hori,
Begira poliki,
Eta egin zituen
Hogei bola txiki.

Satorra behiarengan
Joan, ze zorion!
-Kaixo zurea al da
Burukoa? Egunon.
-Nirea ez da horrela,
Ikusi, itxaron,
Opil berde- marroia
Behiak egin zion.

Satorra kezkatuta
Haserre zegoen,
Animalia txikiak
Ezer ez zekien,
Satorra etsiturik
Ideiak pentsatzen,
Euliei galdetzera
Satorra joan zen.

Satorrak bazekien
Bidea bai zuzen,
Asko dakite haiek
Kaka artean ibiltzen.
Euliek jo eta ke
Hartuta esan zuten,
Dastatu eta gero,
Txakurrarena zen.

Joan zen txakurraren
Etxola aldera,
Kizkur lotan zegoen,
Igo zen gainera,
Ausartu zen buruan
Kaka egitera;
Satorra oso pozik
Joan zen etxera.



Umandi ikastola – Gasteiz

5. B

Bazeuden bi ume ez
Zutela ikasten,
Bere amaordeak ez
Zituen maitatzen
Ta denbora osoan
Zegoen agintzen,
Ta bere familia
Oso pobrea zen.

Amaordeak aitari
Behin proposatuta,
Bere ume txikiak
Basoan sartuta
Eta gure umeak
Oso beldurtuta
Hansel ta Gretel zeuden
Basoan galduta.

Hansel ta Gretel triste
Ta bakarrik zeuden
Etsituta zeuden ta
Basoan beldurtzen,
Txokolatezko etxea
Aurkitu egin zuten,
Hurbildu eta hasi
Ziren pixkat jaten.

Umeak etxe ondoan,
Atsoa atera,
Goxo ote zegoen
Jana galdetzeraz,
Atsoa sorgina zen,
Zaharra gainera,
Gonbidatu zituen
Etxera sartzera.

Atsoa sorgin gaizto
Bazen azkenean
Eta Hansel sartu zuen
Kaiola batean,
Sorginak jango zuen
Potolo jartzean
Ta Gretel jarri zuen
Garbitzen etxean.

Sorginak labea bai
Jarri zuen berotzen,
Hasi nahi zuelako
Ogia egiten,
Gretel barrura bota,
Hori egin zuen!
Eta sorgin gaiztoa
Erretzen hasi zen.

Dirua hartu eta
Joan irribarrean
Eta sorgina utzi
Labe zikinean,
Baina joan aurretik,
Jan pixkat etxean,
Etxera itzuli ziren
beltxarga batean.

Amaordeak jantzi zuen
Gainean soineko
Ta erre kara joan zen
Ura edateko,
Amaorde gaiztoa
Han bertan zen ito
Ta zoriontsu bizi
ziren betirako.



Umandi ikastola – Gasteiz 5. C

Txikitán amarekin
pozik bizi ziren
etxea txikiazen
ta ez ziren sartzen
esnatu zirenean
goiz argitsu baten
etxetik joatea
erabaki zuten

Txikiaren etxea
bazen lastozkoa,
eta ertainarena
zen egurrezkoa,
handiarena berriz
adreiluz osoa
hala ere zebilen
zelatan otsoa.

Egun batean otso
gaizto ta bitxia
lastozko etxera heldu
putz izugarria
txerritxoa joan zen
gutziz beldurtuta
ertainaren etxera
joan zen txikia.

Egurrezko etxera
iritsi, ai ama!
putz eta putz egiten
hartu zuen lana
etxea bota zuen,
ai ze panorama!
ta biak joan ziren
handiarengana.

Otsoa handiaren
etxera joaten
atea ez ireki
hasi putz egiten
otsoak putz egin ta
etxea ez erortzen
tximiniatik sartzea
erabaki zuen.

Tximiniatik barrena
otsoa sartu zen
baina hiru txerritxoak
konturatu ziren
lapikoko lurruna
hain bero zegoen
eta beraten tapa
kendu egin zuten.

Otsoak ipurdia
erre bat-batean
korrika atera zen
uluka kalean
oso haserre zegoen
handik joan zenean
txerriak zoriontsu
adreiluzko etxean



Umandi ikastola – Gasteiz

6. A

Poltsa apurtu da bai
Esnatu bustita,
Bego oso urduri
Ta Ioritz korrika,
Ospitalera deitu
Umandira baita,
Furgonetan sartzean
Musika jarrita,
Otsailak 18
Ze egun polita!


Bidaiarako gauza
Guztiak prestatzen,
Janaria ta ura
Urpekarian sartzen,
Ohean gaudenean:
Bidaian pentsatzen,
Jada prestatu dugu
Dena dago zuzen,
Lagun guztiak goaz
Urpekari baten.

Jaiki ohetik eta
Zein egin handia!
Amaren bi musuak
Eta marrazkia,
Aitak prestatutako
Kriston gosaria,
Komunera joan eta
Hartu orrazia,
Amaren oparia
Arropa berria.

Berriro errepikatu
Partidu berbera,
Bartzelonakoa ploff
Egin da atera,
Energia izateko
Denok jaten bera,
Lakua- Arriagan
Ez dauka aukera,
Lakua- Arriagaren
Kontra jolastera.

Izarrak ikustera
Michael bere artean,
Gero gehiago ikusi
Dugu azkenean,
Bai agobiatu gara
Jendea ikustean,
Izarren paseoa
Bukatu gauean,
Gu oso nekatuta
Gaude hotelean.

Irakurtzen ikasi
Guretzat berria,
Mateko liburua
Zen oso lodia,
Klaseko maskota zen
Txakurtxo txikia,
Klasera heldu baitzen
Neska bat bitxia,
Andrea izeneko
Gure alfer berria.



Umandi ikastola – Gasteiz
6. B

Gu klasean gaude ta
Ez dugu atsegin,
Ikasten Blankarekin
Eragiketekin,
Ordua ailegatu
Gaude nerbioekin,
Oraindik itxaroten
Etortzeko arin,
Bihar Selena dator
Energiarekin.

Egun bat falta zela
Guk izan patxada,
Guk gure lagunekin
Ikusi Tamara,
Amak maletak egin
Ta gu Zuhatzara,
Autobusez bidaia
Abesten joan gara,
Itsasontzia hartu
Ta joan irlara.

Goiz batean gosaldtu
Amak eman paga,
Lehenengo janztera
Gimnasten erera,
Aldatzeko arropa
Sartu maletara,
Ordu bat aspertuta
Autobusetara
Ta ailegatu gara
Port Aventurara.

Lehenengo Hezkuntzan
Heldu da garaia,
Isasi genuen ta
Ez zen oso zaila,
Guk marrazten genuen
Pareta eta mahaia,
Irakurri ta idatzi
Gure Himalaya,
Hori izan zen gure
Lehenengo gaia.

Esnatu egin naiz berriz
Etzanda ohean,
Eta ama sartu da
Gelan bat-batean,
Amak musukatu nau
Besteen ostean,
Oso pozik jarri naiz
Denek zoriontzean,
Familiak ito nau
Muxuen artean.



Umandi ikastola – Gasteiz
6. C

Partidua ondo doa
Eta oso aparta,
Deskantsua heldu da,
Jan dugu bokata,
Haserretu gara bai
Ibairi: PATATA!
Maider irristatuta
Kendu du zapata,
Bera lesionatuta
Lurrean botata.

Kros eguna txirrina
Jotzen da aritu,
Soinua entzun eta
Gu azkar mugitu,
Korrika jo eta ke
Postuak jokatu,
Jende guztia dago
Txalotu, txalotu...
Krosaren amaieran
Sariak banatu.

Bazen behin munstroa ta
Godzilla bitxia,
Bakar- bakar bizi zen
Munstro bakartia,
Izaki arraro hau
Ez da ez garbia,
Jaiki zen bai Godzilla
Berde ta handia,
Gasteizera badator
Utziz Japonia.

Beti jaikitzen gara
Lo gorputz guztia,
Goizeko zortzietan
Hartu gosaria,
Laurden gutxitan beti
Garbi aurpegia,
Etortzean urduri,
Baina beti irria,
Eskolara joatea
Da aspergarria.

Txikia nintzenean
Behin nire zaldian,
Beti erortzen nintzen
Betiko tokian,
Behiekin igotzeko
Traktore txikian,
Nire osabarekin
Toloño mendian,
Guzti hori egiten
Nuen baserrian.

Bego 5. mailan
Zen andereñoa,
Oparia ekarri
Eta oso gozoa,
Bere hilabetea
Da, noski, martxoa,
Lehenengo egunean
Abesten bertsoa,
Bere ile urdina
Oso arraroa.



Armentia ikastola – Gasteiz

5.A

Doinua: Pasaiko plazatik

Aita gaixoa hil da
erabakia du
zer nori oparitu
dutelako zaindu
gazteari katua
Ai! Zenbat apuru
besteentzat astoa
ta errota dugu

Katuak jabeari
bota pareta eta
txano bat ta zakua
ezpata bat baita
eta basora doa
da oso ausarta
ehizean aritzen da
ateraz ezpata

Katuak ehizatzen du
untxi txikitxo bat
erregeari eman
katu botadunak
jabea errege dela
esan du katua
gezurra esateko
gaitasuna du hark

KATU BOTADUNA

Katua basotikan
badoa ehizara
txapela ta botekin
ardiak hiltzera
ezpata ta guztia
txoriak hartzera
erregeari eman
opari modura

Errege aberatsa
da guztion buru
katuaren jabea
ezagutu nahi du
ta katua ordea
jabea lagundu
erregea engainatzen
oso ona dugu

Erregeak gezurra
irensten du eta
ezkontzeko eskaini
bere alaba Marta
zoriontsuak dira
guztiak tarteka
ospatu eta gero
handia da tarta



Armentia ikastola – Gasteiz 5.B

Doinua: Pasaiaiko plazatik

Mundura etorri ia
bi seme-alabak
badira familia
gaixo eta txiroak
basoan egon dira
iluntzean beltzak
izarrak milioika
hauek istorioak

Basora eramaten
dituzte ta ogi
apurra bota dute
bide miragarri
etxera bueltatzeko
bidea nabari
ez diote beldurrik
ez elurteari

Haurren apurrak daude
basoko bidean
ez dira konturatu
txorien pozean
"Hansel galduta gaude"
dio negarretan
tristura eta pena
galdu direnean

Gozokizko etxea
ezeren erdian
hurbildu eta sartu
amonak barruan
amonak gonbidatu
gozokiak eman
poz-pezik zeuden biak
etxe polit hartan

Hansel kaiola baten
sartu du sorginak
ta Gretel gaixoari
jan ta jan emanak
sorginak loditzea
ditu bere nahiak
zer jan emango dio
ura eta patatak

HANSEL ETA GRETEL

Sorgina engainatu
nahi dute batera
elkarrekin lanean
badoaz lortzera
Hansel irten da eta
Gretel laguntzera
bota dute sorgina
lapiko handira

Azkenean altxorra
umeen eskuan
gurasoengana jo
poz pozik bidean
zoriontsu kalean
irribarreetan
ia ia etxean
etxeko parkean



Armentia ikastola – Gasteiz 5.D

Doinua: Mutil Kantzontzillosuak

HIRU TXERRITXOAK

Amak esaten dio
hiru txerriei
nagusiak direla
Ta ekin etxeei
otsoa ikustean
esan anaiei
korrika azkar egin
esan lagunei
otsoa dagoela
ta esan besteei


Gure txerrikumeek
ez daukate etxerik
eta otsoa dabil
beraien atzetik
etxea eraiki ta
denak desberdinak
Lastoa ta egurra
erabiliz soilik
adreilua erabiliz
handiak bakarrik

Otsoa gose dago
txerri antojua
txerriaren etxera
bizkor joan tontua
etxean dago bai da
hasten da puztua
etxea botatzen du
txerri izutua
lasterka bizkor doa
anaian etxetxua

Otsoak putz eginez
etxea apurtu
txerrikumeak korri
zaharra babestu
etxean sartu dira
etxea banatu
otsoak putz egin du
otsoak jokatu
txerrikumeak alde
lapikoak piztu

Adreiluzko etxera
badoa otsoa
berak badauka jada
bota etxetxoa
bota nahi luke berak
etxetxo osoa
deprimiturik dago
Otso kokoloa
ustez azkarra zena
bihurtu tontoa

Otsoa tximinitik
sartu, ze ikara
baina otso gaiztoak
egin du algara
otsoak oso txarrak
txerritxoekin dira
txerritxoek piztu bai
sua handia jada
otsoa bota da bai
sua pizturik da



Armentia ikastola – Gasteiz

6.A

Doinua: Kupela

Araba euskaraz
pila zoriona
beti da bai Araba
gure oroimena
ezetz esatekotan
zara astakirtena
beti dabiltz jolasten
txiki ta handiena
Araba Euskaraz da
festarik onena

Euskararen eguna
Euskara ospatzen
Oso ondo pasatzen
baita dantzatzen
oso pozik gaude
gu beti jokutzen
denok karaokean
Euskaraz kantatzen
oso triste bagaude
eguna amaitzen

Argitxori esan nion
euskalduna zara
berak erantzun zidan
zu ere ba zara
saiatuko bazina
egiten euskara
denok botako zuri
bere begirada
joango ginake biok
poteo hortara

Beti euskaraz egin
baita kiroletan
Euskal Herri kirolak
bai esku pilotan
bai sokatiran ere
poza irabaztean
baina euskaraz beti
guk Euskal Herrian
gora herri kirolak
beti bihotzean

Klaseko momenturik
onena irteera
gehienok aspertzean
lokartzen bagara
ez da gure errua
aspertzen bazara
eta azterketetan
utziko ikara
Armentia ikastola
hoberenak gara

Munduko hoberena
da Euskal Herrian
oso ondo pasatuta
herri ta jaietan
bere hizkuntza euskara
hitz egiten da han
bertsotan hasten gara
gu ba aspertzean
Euskara bizitzen da
Gasteizko hirian



Armentia ikastola – Gasteiz 6.B

Doinua: Kupela

Araban bizi gara
euskaraz beti
jolasten, bizitzen ta
ez gera kakati
hizkuntza hau beti da
ikasten poliki
pozez guztia beteta
ibili euskalki
erderarekin bai lotsa
ta bai oso gaizki

Donostian badaude
hainbat aizkolari
Araban ere badaude
denak oso adi
enborrak apurtzea
dute farregarri
Olasagastik maite
irabaztea sarri
bere Aitona izan zen
bertan pilotari

Txikia izan arren
bera da handia
ta bertan egon zena
desastre bitxia
ondoren joan ziren
hainbat polizia
bonbardeo gisara
ezagunegia
Gernika dagoena
da nire bizia

Ikastola ikusten
zelako ikara
azterketak hastean
zelako dar-dara
ondokoari jarri
diot begirada
irakasleak esan dit
tontoa al zara
ikastolan euskara
ta etxean erdara

Euskaraz beti pozik
eta beti alai
gai pozgarriak dira
ta festak dira guai
Armentia Ikastolan
egoten gara ai
Euskaraz egiteko
izaten gara gai
Euskararen eguna
da hoberena bai

Dena dago hastear
motorrak prestatu
jende asko badator
eta ni naiz poztu
hasi da lasterketa
ta niri kostatu
baina esperantzarik
ez dut nik ahaztu
korri korri korrika
ezin da gelditu

Kaletik joan nintzen
dantza politena
egiten ari nintzen
salto ederrena
Historian joan ginen
gu beti azkarrena
eskolan esan zigun
ongi zegoena
Euskal dantza da nire
kirol hoberena

Kolore desberdinak
zuriarekin hasi
berdea polita da
ta oso berez
gorria ez da hain polita
baina kasi - kasi
hau da gure ikurrina
dela hola nahasi
Euskal Herria berak
ideia nagusi



Armentia ikastola – Gasteiz 6.D

Doinua: Kupela

Uxue eta Ainhoa
berri txapeldunak
gure aitona amonak
ziren beti onak
aizkolari trebeak
ta ziren onenak
guk hartu dugu bere
gene trebeenak
gure herrian ditugu
kirol ederrenak

Euskal Herrian daude
jaietan eskolan
Arabian batez ere
ta ere Gipuzkoa
zaindu behar ditugu
ibaiak ta mendietan
natura batez ere
ez bota kalean

Ikasgai asko daude
ta gu beti galdezka
ingelesa txanela
eta matematika
ta ikasterakoan
azterketaz kezka
ikastolan sartzeko
sekulako aldapa
aspergarria baina
askotan barrezka

Euskara ikastera
goaz euskaltegira
ondo pasatzen dugu
gora eta bera
hiztegiarekin ta
gero joan etxera
asko gustatzen zaigu
hizkuntza euskara

Ega ateratzera
goaz euskategira
baina a ze pereza
hobeto parkera
langaberik egonez
nahiak pikutara
parkeak ahaztuta
etxea eitera
ta besterik ezean
goazen ikastera

Euskara maite dugu
eta Olentzero
euskaldunak gara ta
ez dugu babero
agurra maite dugu
gara patatero
fandangoa hori bai
ikusi igandero
harri dantza maite dut
gaur eta egunero



Toki Eder – Gasteiz 5.A

Hansel ta Gretelek ez
zuten esperantza.
Etxe zahar bat omen zen
ez dago zalantza.
Beraiek ez zeukaten
ezta ez ikatza.
Etxe honetan zegoen
egoera latza.

Amaordeak pentsatu
eta egin aita
amaordeak aitari
ideia polita
Aita berriz etxera
joan zen korrika
aitak Hansel ta Gretel
basoan utzita.

Txokolatezko etxe bat
aurkitu aurrera
etxeko txokolate
guztia jatera
bat-batean etxetik
atso bat atera
gonbidatu zituen
etxera sartzera.

Atsoa sorgina zen
ipurdi handia
atsoa ere bai zen
oso itsusia
Hansel loditzen jarri
jartzeko lodia
Gretel garbitzen jarri
etxeko guztia.

Gretel zegoen triste
garbitzen etxea
eta sorginagaiztoa
basuen gozea
zorginak ezan zion
labe jartzea
eta Gretelek martxan
ipini labea.

Labea jarri zuen
zegoen berotzen
Hansel kartzelan eta
jaten eta jaten
labea ikustera
sorgina joan zen
Gretelek bultzatu ta
sorgina erre zuten.

Hanselek ta Gretelek
salbatuta jada
sorginaren urrea
ikusita hara
umeak gonbidatu
denak beharbada
txokolatezko etxean
gu ere egon gara



Toki Eder – Gasteiz 5.B

Ama ta zazpi antxume
bizi ziren pozez
ama Eroskira joan
zerbait behar zenez
antxumeak agurtu
zituen esanez
ez ireki atea
inori ere ez.

Otsoa etxeraino
ailegatu egin zen
Otsoak atea jo
ta ez utzi sartzen
hanka erakusteko
berak esan zuen
beltza zenez otsoa
kanporatu zuten.

Idea bat eta
nahikoa garrantzi
irina askorekin
bi oinak igurtzi
irineztatu ondoren
hanka erakutsi
baina ahotsarengatik
ez zioten utzi.

Eztarria leundu
arrautzarengatik
etxera joan zen bai
azkar ta plazatik
berriro saiatu zen
berriro alferrik
ez zen etxera sartu
usainarengatik.

Buelta eman nahian
bere usainari
otsoak bota zuen
H S ugari
antxumeek usaindu
ama bezain garbi
sartzen utzi zioten
otso gaiztoari.

Otsoa sartu eta
jan zituen atean
Otsoa tripa bete
eta joan azkenean
txikia ez zuen jan
zegoen etxean
pelutxearena egiten
amaren ohean.

Ama bueltatu da eta
hau da iskanbila
txikiak dena kontatu
ez da oso isila
Hori dena kontatzen
negar malko pila
ama eta semea
otsoaren bila.

Otsoan siestan dago
amets goxoekin
erreka ondoan dago
amak bilatzen fin
labana hartu eta
tripa irekiakin
ta azalorea sartu
Tabaskoarekin.

Otsoa esnatu eta
egarrituta zen
otsoa lasai asko
hasi zen luzatzen
Otsoa erre kara
Joan ta ito edaten
Antxumeak betiko
zoriontsu ziren.



Toki Eder – Gasteiz
6. A

Pelutxea ikusi nun
Iaz telebistan
Gurasoei eskatu
Nien nik benetan
Beti olentzerori
eskatu gauetan
Gabonetako gauan
Nengoen ni lotan
Olentzerok ekarri
Zidan gabonetan.

Korrika iritsi da
Oso pozik gaude
Korrika egitean
Gara oso trebe
Euskaldunak gara gu
Euskararen jabe
Korrikaren kartela
Jarri da dotore
Nekatuko gara gu
Euskararen alde.

Ikastolan hasita
Beti- beti negar
Umeak ez daukate
Ez lotsa ez indar
Umeez ez dakite
Zer den on ta zer txar
Jolastokian beti
Pozik ta irrifar
Jolasten ta margotzen
Egunean zehar.

Gosaria eguneko
Jatordu lehena
Osasuntsua, normal
Bestela problema
Boileria industrial
Jateko txarrena
Fruta ta zerealak
Jan behar dena
Egunean jatordu
Garrantzitsuena.

Taewkondo Koreatik
Gasteizera pauso
Beraiek ukabila
Eta guk eraso
Buruan ematea
Da nahiko arazo
Pose honetan jarri
Ta egon eroso
Ostikadak eman ta
Ostikadak jaso.



Toki Eder – Gasteiz
6. B

Sarita eta Mainer
hondartzan ederto
Marcos eta Eneko
Teidean hobeto
Izerditu aurpegi
bizkar eta lepo
bestiak bitartean
toalla jartzeko
Gailurrera iritsi
Marcos eta Eneko

Hegazkinetik jaisten
ikusitua Asia
bi segundu ondoren
sentitu ostia
zaplazteko handi hori
ez nuen merezia
handia pena zidan
ta gero txikia
egun oso batean
aurpegi gorria

Olaia uretara
segidan da joaten
Olaia oso pozik
dago hor burlatzen
toboganera joan
oso pozik aritzen
lasterka batean
oso azkar mugitzen
Peter Angilaren
estiloa egiten

Cristian etorri ta
da artaburua
nahiz eta burusoila
ile apaindua
arrosaz eta morez
ile tintatua
gauza bat falta zaio
ta da torlojua
ilea moztu nahi du
gutziz rapatua

Toki Ederren bada
azkenengo urtea
oso ondo pasatu
hau ze dotorea
bueltan ikusiko
berriro klasea
seigarren mailan beti
da bidaiatzea
Aurten tokatzen da ta
txangoz joatea.



Toki Eder – Gasteiz
6. C

Inmarekin bosgarren
mailan hasi ginen
bi urte daramagu
batera ikasten
ohituta gaude denok
zurekin egoten
batan mantxa handi bat
zerutik da ikusten
Inma oso majua da
Nota onak jartzen

Txakurrak gosea du
ta jan azeituna
Ondoren hezurra jan
bai pixkat tuntuna
kalera irten gara
ni eta laguna
berak pilota ekarri
bai txakur txukuna
jolasten pasa dugu
gaua eta eguna.

Ai Elena maitea
ezin gosaltzea
ohea egin gabe
hartu kafe-esnea
denok autobusean
hartu bai txiklea
Inma Aquapark-ean
honek bai nekea
Aquapark-era joan
gu eta klasea.

Udaberria heltzean
dena da polita
lore asko badaude
bat da margarita
kaletik gu joan gara
pozik ta korrika
eguzkia hor dago
berotzen hasita
dena lorez bete da
kolorez jantzita.

Loroa hartu nuen
joatean dendara
Loroa ez zen isiltzen
hori bai algara
kaiola garbitzeko
egiten zuen traba
umore txarra zeukan
eta pikutara
hau ere itzuli nuen
denda horretara.

ZATOA BERTSO ESKOLARA!



GASTEIZKO BERTSO-ESKOLA

Amaia Zentroa
Benito Perez Galdos z/g
01002 GASTEIZ
Arduraduna: Iñaki Viñaspre
Tel: 688695875
e-posta: araba@bertsozale.com

XAGUMENDI BERTSO ESKOLA

Judimendi auzo elkarte
Cola y Goiti kalea 5-7
01003 Gasteiz
Arduraduna: Lukas Etxebarria
Tel: 945 010505
(Arabako bertsozale elkarte)
e-posta: araba@bertsozale.com

BERTXILIKA BERTSO ESKOLA

Armentia ikastola
Gaztela ataria 101
01007 Gasteiz
Arduraduna: Hodei Lopez de Arkaute
Tel: 945 145445
e-posta: armentia@ikastola.net

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Amaia Zentroa
Benito Perez Galdos z/g
01002 GASTEIZ
Arduraduna: Iñaki Viñaspre
Tel: 945010505—688616534
e-posta: araba@bertsozale.com

